

E. ARRISKUAK KONTROLATU ETA KUDEATZEKO SISTEMAK

E.1 Azal ezazu zer irismen duen entitatearen Arriskua Kudeatzeko Sistemak.

ARRISKUAK KUDEATZEKO SISTEMAK MODU INTEGRALEAN FUNTZIONATZEN DU. ARRISKUEN AREAN ZENTRALIZATZEN DA OHIKO KREDITUAREN ARRISKUA ONARTU, JARRAITU ETA BERRESKURATZEKO ARDURA, BAI ETA INTERES TASAREN, LIKIDEZIAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZEKO ZEREGINA ERE. HILEAN BEHIN, ERAGIKETA ARRISKUA EZ BESTE ARRISKU GUZTIEN SEGIMENDUARI BURUZKO TXOSTENA HELARAZIKO ZAIO AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEARI, ETA, HIRU HILEAN BEHIN, ERAGIKETA ARRISKUARENA ERAGIKETA ARRISKUAREN BATZORDEARI.

ARRISKU GUZTIEN JARRAIPENA ERA ZENTRALIZATUAN EGITEN DA. AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEA DA HORREN ARDURADUNA, ETA, ERAGIKETA ARRISKUAREN KASUAN, ERAGIKETA ARRISKUAREN BATZORDEA. ALTXORTEGIAREN ETA KAPITAL MERKATUAREN ARRISKUAK HORTIK KANPO GELDITZEN DIRA, BERARIAZ UZTEN BAITA ALTXORTEGIAREN DEPARTAMENTUAREN ARDURAPEAN. ERA BEREAN, KREDITU ARRISKUA ERE KANPOAN GELDITZEN DA, BULEGOEI DAGOKIEN ESKUMENETAN.

E.2 Aderaz ezazu zein diren Arriskuen Kudeaketa Sistema prestatzeaz eta burutzeaz arduratzen diren entitateko organoak.

KONTSEILU ERREKTOREA: ADMINISTRAZIO ORGANO GORENA. BERA DA ENTITATEAK BEREGANATZEN DITUEN ARRISKUAK ZAINDU ETA GAINBEGIRATZEAREN AZKEN ARDURADUNA. HORI DELA ETA, ARRISKUAK ZORROTZ KONTROLATZEKO ETA ARRISKUEN INGURUKO INFORMAZIOAREN DESKARGU SISTEMATIKOA ESKATZEN DIO ZUZENDARITZA NAGUSIARI. ILDO BERETIK, ARRISKUEN BATZORDE BATZUETAN ZUZENEAN HARTZEN DU PARTE.

ZUZENDARITZA NAGUSIA: KONTSEILU ERREKTOREAK BERE GAIN UTZI DUELAKO, ARRISKU POLITIKAK EZARTZEAZ ARDURATZEN DA ZUZENDARITZA. GESTIO KOMERTZIALA FUNTZIOAK ETA ARRISKUEN INGURUKO ZEREGINAK BEREIZTEA IRIZPIDETZAT HARTURIK ANTOLATU DU ARRISKUEN KUDEAKETA.

ARRISKUEN AREAK ARRISKU BATZORDEARI ETA KONTSEILU ERREKTOREARI BIDALTZEN DIE, HIRU HILEAN BEHIN, ARRISKU GUZTIEI BURUZKO JARRAIPEN ETA KONTROL TXOSTENA, ARRETA BEREZIA ESKAINIZ EZARRITA DAUDEN MUGAK ETA PROZEDURAK ZENBATERAINO BETE DIREN.

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEA: ORGANO HORI ARDURATZEN DA EGITURAZKO INTERES TASAREN ARRISKUA, LIKIDEZIA ARRISKUA, MERKATU ARRISKUA ETA KREDITU ARRISKUA KONTROLATZEAZ. ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENDUAK BERARI HELARAZTEN DIO, HILEAN BEHIN, ARRISKUEN JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA BATZORDE HORRETAN HARTZEN DIRA LIKIDEZIAREN, INTERES TASAREN ETA MERKATUAREN ARRISKUEN GESTIOARI LOTUTAKO ERABAKIRIK GARRANTZITSUENAK.

ERAGIKETA ARRISKUAREN BATZORDEA: ERAGIKETA ARRISKUA KONTROLATZEN DU. ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENDUAK BERARI HELARAZTEN DIO, HIRU HILEAN BEHIN, ERAGIKETA ARRISKUAREN JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA BATZORDE HORRETAN HARTZEN DIRA ARRISKU HORRI LOTUTAKO ERABAKIRIK GARRANTZITSUENAK.

ARRISKUEN AREA: PARTIKULARREN ETA ENPRESEN KREDITU ARRISKUA ONARTU, JARRAIPENA EGIN ETA BERRESKURATZEKO ARDURA ZENTRALIZATZEN DU. ERA BEREAN, KREDITU ARRISKUAREN BARNE EREDUAK SORTU ETA MANTENTZEAZ ETA LIKIDEZIAREN, INTERES TASAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZEAZ ERE ARDURATZEN DA.

ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENDE DAGO. ARRISKU GUZTIEN IKUSPEGI OROKORRA EMATEN DU, DEPARTAMENTU BAKARREAN GAUZATZEN DELAKO ARRISKU GUZTIAK NEURTU ETA KONTROLATZEKO EGINKIZUNA. APB-ARI ETA HURA MENDEAN DUEN ARRISKU BATZORDEARI HELARAZTEN DIE INFORMAZIOA. DEPARTAMENTU HORREK PRESTATZEN DITU KREDITU ARRISKUA ONARTU ETA JARRAITZEKO BARNE EREDUAK, ETA, ILDO BERETIK, BERA ARDURATZEN DA INTERES TASAREN, LIKIDEZIAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZAZ.

ARRISKUEN KUDEAKETAREN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENDE DAGO. PARTIKULARREKIKO ETA ENPRESEKIKO KREDITU ARRISKUA KUDEATZEAZ ARDURATZEN DA, HALA ONARPENARI DAGOKIONEZ, NOLA AUZI-AURREKO FASEETAN EGOERA IRREGULARREI JARRAIPENA EGITEARI ETA BERRESKURAPENEI DAGOKIENEZ. ZENBATEKO BATETIK GORAKO KOBRAEZINEN ZEHAPENETAN HARTZEN DU PARTE, KOBRAEZINEN BATZORDEAN PARTE HARTUZ.

JARRAIPENAREN ETA BERRESKURAPENEN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENDE DAGO. ENPRESAK BERANDUTZAN SARTU BAINO LEHENAGOKO ARRISKUAREN JARRAIPENAZ ARDURATZEN DA, BAI ETA ENTITATEKO TXIKIZKAKO SAREKO BEZEROEN BERANDUTZAGATIKO INBERTSIO IRREGULARREKO EGOERAK BERRESKURATZEAZ ERE. ZENBATEKO BATETIK GORAKO KOBRAEZINEN ZEHAPENETAN HARTZEN DU PARTE, KOBRAEZINEN BATZORDEAN PARTE HARTUZ.

AHOLKULARITZA JURIDIKOKO DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENDE DAGO. ARRISKU ERAGIKETETAN DOKUMENTU JURIDIKOEN BIDEZKO BABESA ESKAINTZEAZ GAIN, ENPRESA SAREAN AUZIBIDEA KUDEATZEN ERE LAGUNTZEN DU.

ALTXORTEGIKO DEPARTAMENTUA: FINANTZEN AREAREN MENDE DAGO ETA FINANTZA ENTITATEEN ETA ERRENTA FINKO PRIBATUAREN KREDITU ARRISKUA, MERKATU ARRISKUA, EPE LABURREKO LIKIDEZIA ARRISKUA ETA APB-AN HARTUTAKO ERABAKIEN ONDORIOZKO POSIZIOAK KUDEATZEAZ ARDURATZEN DA.

ARAUDIA BETEARAZTEKO DEPARTAMENTUA: ENTITATE BARRUAN ARAUDIA BETEARAZTEARI LOTUTAKO ALDERDIAK KONTROLATZEAZ ETA JARRAITZEAZ ARDURATZEN DA. HORRETARAKO, ENTITATEKO HAINBAT AREA ETA DEPARTAMENTU KOORDINATZEAN DITU.

BULEGO SAREA: PARTIKULARREKIN NAHIZ ENPRESEKIN KREDITU ARRISKUA ONARTZEKO PROZESUAREN LEHEN FASEA DA. ESPARRU HORRETAN, HAINBAT AHALMEN DITUZTE ESKUORDETUTA, BETI ERE ENTITATEAREN ARRISKU POLITIKAK ZEHAZTUTAKO SCORING/RATING MAILEN, ALERTEN ETA ESKUMENEN ESPARRUAN. ARRISKUA ONARTZEAK TXIKIZKAKO SAREAREN ESKUDANTZIA GAINDITZEN BADU, BERRESPENA ARRISKU AREAREN ESKU UZTEN DA.

BARNE IKUSKARITZA: ASEGURATZEAREN ETA KONSULTEN ALORREKO EGINKIZUN INDEPENDENTE ETA OBJEKTIBOA BETETZEN DU. IKUSPEGI SISTEMATIKO ETA DIZIPLINATUA EMANEZ, ARRISKUAK KUDEATU, KONTROLATU ETA GOBERNATZEKO PROZESUEN ERAGINKORTASUNA EBALUATU ETA HOBETZEN DU.

E.3 Azal itzazu negozio-helburuak lortzeko arrisku nagusiak.

PARTIKULARREKIKO ETA ENPRESEKIKO NEGOZIO TRADIZIONALAREN KREDITU ARRISKUA (ETA KONTZENTRAZIO ARRISKUA), EGITURAZKO INTERES TASAREN ARRISKUA, LIKIDEZIA ARRISKUA, ALTXORTEGIAREN ETA KAPITAL MERKATUAREN ARRISKUAK (AURKAKO ALDERDIAREN, HERRIALDEAREN, KONTZENTRAZIOAREN ETA MERKATUAREN ARRISKUAK), ERAGIKETA ARRISKUA, OSPE ARRISKUA ETA NEGOZIO ARRISKUA.

E.4 Adieraz ezazu entitateak baduen arriskuarekiko tolerantzia-mailarik.

ENTITATEAK ARRISKUAREKIKO TOLERANTZIA MAILAK DITU, ARRISKUAREKIKO GRINAREN ESPARRUAN ZEHAZTUTA. TOLERANTZIA MAILA NAGUSIAK KAPITALARI, LIKIDEZIARI ETA ERRENTAGARRITASUNARI BURUZKOAK DIRA.

E.5 Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

INTERES TASAREN ARRISKUARI DAGOKIONEZ, INOIZ EZ DA GAINDITU KONTSEILU ERREKTOREAK EZARRITA DUEN ETA APB-AK KONTROLATZEN DUEN MUGA.

MERKATU ARRISKUETAN, SOBERAKOAK GERTATZEZKOAK DIRA, HAU DA, MUGAK MURRIZTEAK ERAGINDAKOAK ETA EZ POSIZIOA HANDITZEAREN ONDORIOZKOAK. KASU HORIETAN, KONTROL SISTEMEK EGOKI FUNTZIONATU DUTE. APB-K SOBERAKO HORIEN BERRI IZAN DU, ETA POSIZIOARI EUTSI ALA EZ ERABAKI DU.

LIKIDEZIA ARRISKUARI DAGOKIONEZ, ENTITATEAREN LIKIDEZIARI JARRAIPEN SISTEMATIKOA EGINEZ ETA AURREIKUSPENEKIN ALDERATUTA DITUEN DESBIDERAPENAK ETA HILEKO ALTXORTEGI PLANAK AZTERTUZ, BEHAR ADINAKO AURRERAPENEZ ARI DA EPE ERTAINERA IZAN DEZAKETEN KONTRAKO ERAGINA AURREIKUSTEN ETA, ONDORIOZ, BEHARREZKO EKINTZA ZUZENTZAILERAK BIDERATZEN. LIKIDEZIA RATIOEK, LCR-AK ERE BAI, MAILA BIKAINAK DITUZTE. GAINERA, LIKIDEZIAREN INGURUKO KONTINGENTZIA PLANA SORTU DU ENTITATEAK, LIKIDEZIA LARRIALDIETARAKO ESTRATEGIAK FINKATZEKO.

KREDITU ARRISKUARI ETA PARTIKULARREN ETA ENPRESEN SEGMENTUETAKO ERAGIKETEI GAGOZKIOLA, KREDITATU BATEKIKO ARRISKUAK ESTAMENTU BATEKO ESKUDANTZIAK GAINDITZEN DITUENEAN, GORAGOKO ESKUDANTZIAK DITUEN HURRENGO ESTAMENTURA BIDERATZEN DA IRIZPENA. FINANTZA ERAKUNDEEKIKO ETA KORPORAZIO HANDIEKIKO ERAGIKETETAN, EZ DA SOBERAKORIK SORTU URTEAN ZEHAR.

ERAGIKETA ARRISKUAN, BERRIZ, ENTITATEAREN JARDUERAREN ONDORIOZ NAHITAEZ SORTZEN DIREN GALERAK TXIKITU EGIN DIRA, ATAL KUALITATIBOAN EZARRITA DAUDEN KONTROLEI ESKER. AZKEN URTEOTAN ZEHAR, HORNIDURAK EGITEN DIRA, ETORKIZUNEKO BALIZKO BEHARREI ERANTZUTEKO.

OSPE ARRISKUARI DAGOKIONEZ, BEZEROEKIKO NEGOZIOAN IZANDAKO EGOERA BATZUEK PUBLIZITATE NEGATIBOA ERAGIN DUTE ETA HORIEK KUDEATZEN ARI DIRA.

E.6 Azaldu zer plan dauden Entitatearen arrisku nagusiei erantzuteko eta ikuskapena egiteko.

BARNE IKUSKARITZAK ZEHAZTEN DU ENTITATEAREN ARRISKUAK BARRUAN NOLA GAINBEGIRATU. IZAN ERE, ARRISKUEN KUDEAKETA ETA KONTROL PROZESUEN ERAGINKORTASUNA EBALUATU ETA HOBETZEA DA HAREN ZEREGINA.